# TXANTXIKU IKASTOLAREN ASTEA 2026

APIRILAK 13, ASTELEHENA.

- Batxilergoko 2. mailako JAOko ikasleek Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin hainbat saio burutuko dituzte:
  - HH: Erreflexuak lantzeko mugimendu eta ariketak bertako irakasleen laguntzaz.
  - LH: DBHra sartu aurreko kezkak, zalantzak argitu, bizipenak kontatu eta teknkikak aurkeztu.

APIRILAK 14, MARTITZENA.

- 10:30ean, Santa Ana antzokian, HH 3 urtetik LHko 1. ziklora bitarteko ikasleentzako, PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS pailazoen *Zorionak Mari Motots* emanaldia.

- Batxilergoko 2. mailako JAOko ikasleek, zaharren egoitzara bisita.

APIRILAK 15, EGUAZTENA.

- LH 3. mailako ikasleek Olabarrietako errotara bisita.

- 11:00etan, hitzaldia DBH 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasleentzat: *Desberdin izatea*. Batxi 2ko ikasleak eta gonbidatu berezia.

APIRILAK 16, EGUENA.

- 11:00etan, Santa Ana antzokian, LH 3 eta LH 6 bitarteko ikasleentzako emanaldia: ZIRKUN taldearen *Mai Tatzen* ikuskizuna.

- 17:00etan, Santa Ana antzokian, LH 6. mailako ikasleen txotxongilo-emanaldia familientzat eta LH 6. mailako ikasleentzat.



APIRILAK 17, EGUBAKOITZA.

GOIZEAN:

- HH/LHko ikasleentzat: Santa Ana gunean EKINTZA BEREZIAK.

- BHko ikasleentzat, ekintza bereziak.

EGUERDIAN:

- Azoka plazan, BHko IKASLEEN BAZKARIA, eta, ondoren, JOLASAK pilotalekuan.

ARRATSALDEAN:

- Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan JAIALDIA:
  - 14:30ean LHko ikasleentzat.

  - 18:00etan familientzat. *Sarrera gonbidapenarekin; ikasleek jasoko dute zuzenean

- 14:30ean, Txantxiku ikastolako Santa Ana guneko jolas lekuan, HHko ikasleentzako JOLAS PARKEA: puzgarriak eta trentxoa.

- 16:30eatik 18:00etara, JOLAS PARKEA herritarrei irekia.





## APIRILAK 18, ZAPATUA.

ATE IREKIAK 0-2 URTEKO ESPAZIOAN: ZATOZ GUREKIN JOLASTERA.

- 11:00-13:00 bitartean 0-2 urteko espazioak irekiko dira bertan aritzen diren ikasle eta familiak elkarrekin jolastera etortzeko. Animatu lagun eta familia berriak zuekin jolastera!

GOIZEAN:

- 11:00etatik aurrera:
  - Herriko plazan, TAILERRAK, PUZGARRIAK, AURPEGIA MARGOTZEA, ELKARTASUN EKINTZAK eta TXAPA TAILERRA.
  - Txantxiku ikastolako Santa Ana guneko jolas lekuan, JOLAS PARKEA, TAILERRAK, JOLASAK eta TALO TAILERRA.

- 11:45etan, plazan eta Santa Ana gunean, ikasleentzako BOKADILOAK.

- 13:00etan, ikastolaren plazako eraikinaren aurrealdean, PINTXO POTEOA.

EGUERDI ETA ARRATSALDEAN:

- 14:30ean, Ikastolako komunitateari zabaldutako bazkaria azoka gunean. Paella jana.

- Bazkal ostean, Aritz Erasun eta Joseba Zabalo trikitilariak eta AISIOLA begirale ikastaroko ikasleek antolatutako jolasak.

- 18:00ak aldera, TRIKIPOTEOA herriko kaleetan zehar.

## APIRILAK 19, DOMEKA.

- Orientazio proba egingo da; ez da txapelketa bat izango.
  - Goizeko 10:00-11:00 bitartean izen ematea eta hasiera ikastolako patioan, 13:00ak arte.
  - Adin txikikoak nagusi baten ardurapean egon beharko du beti.
  - Argibide zehatzagoak, astean bertan emango ditugu.

KILOMETROTAKO ARROPA SALMENTA

- 2 egunetan zehar 2026ko Kilometrotako arropa erosteko aukera izango da, ondorengo leku eta ordutegian:
  - Apirilak 17, egubakoitza 17:00-19:30 bitartean kiroldegiko sarreran.
  - Apirilak 18, zapatua, 11:00-14:00 bitartean plazan.

# MAITASUN ESKUTITZ BATEN BIDAI LUZEA...

0 eta 1 urteko haurrek ederki ospatu zuten Korrikaren eta euskararen aldeko aldarria. Mapan furgoneta batetik bestera eraman, abestiarekin dantza egin, korrika egin, dortsalak, lekukoa... Bizipen berezia izan da guztiontzat. Hezitzaileok ez genuen espero, beraientzat hain esanguratsua izan zitekeenik. Eta eskerrak emateko, lekuko bakoitzean honako mezu hau bidali genien.

Nork esango luke, bada, ekimen bat txikitatik bizi ezin denik. Garbi dago baietz! Ahalegin, maitasun eta girotzea baino ez da gakoa!

Gurean behintzat, 0 eta 1 urteko Korrika-lagunak egunero ospatu dugu euskararen aldeko aldarria.

Hitz egin edo ez, hizkuntza, barnean daramagu, urte osoan. Hala ere, polita da zuon ahotik, "aua", "apapa"... bezalako hitzez gain "kotxika!", "tutatu!", "koika!", "KORRIKA!"... entzutea.

Eta noski, bakoitza bere martxan! Beti, garbi edukita, lehenengo lekukoa, ondoren pankarta eta gero beste guztiok joango garela, eskuin erraila libre utziz.

Eta gure pankartako furgoneta xumea egunez egun mugitzen joan gara elkarrekin, gure dortsalak eta lekukoak sortu ditugu...

Baina, 0 eta 1 urteko hezitzaileok garbi dugu, euskararen lekukoak zuok, gure txikitxook zaretela.

Segi bada, horrela luzaroan!

Asko asko maite zaituztegu!

*0 eta 1 urteko hezitzaileak*

Bestetik, 2 eta 5 urte artekoek herriko plazan egin zuten atxintxika, eta Lehen Hezkuntzakoek herriko gainerako ikastetxeekin batera, herriko kaleetan zehar egin zuten korrika ohi den bezala, lekukoa txandakatuz. Egunean zehar ateratako argazkiak azpiko estekan dituzue ikusgai.



**ARGAZKIAK IKUSI**

# IKASTOLAREN ASTEKO BAZKARIA ANTOLATZEKO LAGUNTZAILEEN BEHARRA DAGO!

Apirilaren 18an, Ikastolaren Astearen baitan, egingo dugun bazkariak sekulako harrera izan du, bai. Baina antolaketan laguntzeko boluntarioak behar ditugu! Lan txandak antolatu ditugu eta izena ematea eskertuko genuke. Gogoratu txanda batean baino gehiagotan ere izena eman daitekeela.

Horrez gain, bazkariko edariak hotz mantentzeko izotza beharko dugu. Horretarako, eskertuko genizueke etxean esne-brikak urez bete, izoztu eta egunean bertan ekartzea.

Aldez aurretik, mila esker zuen laguntza eta prestutasunagatik. Guztion artean egun bikaina izango dela ziur gaude!

# IZENA EMAN!




---

# LEHEN SOROSPENAK: PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA LANGILEENTZAT ETA DBH4KO IKASLEENTZAT

Joan den astean, Txantxiku Ikastolan lehen sorospenen inguruko formazio saio interesgarriak izan genituen. Ikastolako langileek eta DBH 4. mailako ikasleek hartu zuten parte horietan, larrialdi egoeretan nola jokatu ikasteko aukera izanik.

Saioan, parte-hartzaileek hainbat egoera praktiko landu zituzten, hala nola bihotz-biriketako bizkortzea (BBB), desfibriladorearen erabilera, konorte galerak edota itotze egoerak. Ikaskuntza modu aktibo eta parte-hartzailean egin zen, simulazioen bidez, benetako egoeretara hurbilduz.

Prestakuntza Txantxikuak 2zirikeko boluntarioen eskutik etorri zen, eta berriro ere nabarmendu nahi dugu egiten duten lan bikaina eta komunitatearekiko duten konpromisoa. Eskerrik beroenak zuen jakintza eta esperientzia gurekin partekatzeagatik. Aupa zuek!



# HAUR HEZKUNTZA

## 5 URTEKOAK OKIN

HH 5 urteko neska-mutikook, 'Elikadura osasungarria' gaiarekin amaitzeko, Oñatiko Natur Eskolara egin genuen irteera. Bertan, ogia nola egiten den ikasi genuen, modu praktikoan, orea eskuekin landuz.

Ederto ibili ginen geure orea lantzen eta azkenean lortu genuen opilak egitea. Eskerrik asko Miriam, Unai, Naia eta Martin!



# LEHEN HEZKUNTZA

## HARITZ LARRAGETA IDAZLEAREN BISITA

LH 6ko ikasleek une berezi eta aberasgarria bizitzeko aukera izan zuten aurreko egubakoitzean, martxoak 27: Haritz Larrageta idazlearen bisita izan dugu gure ikastolan. Azken hilabeteotan, ikasleek ANNA KOPEK-en hiru liburu irakurtzeko aukera izan dute, buru-belarri aritu dira irakurtzen, istorioez gozatu eta elkarrekin liburuen pasarteak partekatzen.

Lan horren fruitu gisa, gaur idazlearekin solasaldi atsegin eta hurbila partekatu dugu. Topaketan zehar, ikasleek euren iritziak adierazi, galderak egin eta idazketa-prozesuaren sekretu batzuk ezagutzeko aukera izan dute. Giro goxo eta parte-hartzailean, literaturarekiko interesa eta jakin-mina are gehiago piztu dira.

Esperientzia benetan aberasgarria izan da, eta ikasleek ilusioz hartu dute bisita.





EUSKALTZAINDIA
IRITZIRA
GANORA
OÑATIARTZAINDIA
ALEITZIRA
ARRETIA

# BIGARREN HEZKUNTZA

## GIZONDUZ ZERBITZUAREN ESKUTIK, IKASLE ETA IRAKASLEENTZAKO FORMAZIOA

Emakunderen Gizonduz zerbitzutik, martxoaren bigarren hamabostaldian zehar, hezkuntza-esku-hartze bat burutu da gure ikastolan, DBH3 eta DBH4ko ikasleekin. Ekimenak talde bakoitzarekin bi orduko bi saio izan ditu, eta bertan berdintasunarekin, maskulinitateekin, genero-sozializazioarekin eta tratu onen sustapenarekin lotutako funtsezko gaiak landu dira. Ikasleen parte-hartzea oso aktiboa izan da, eta saioen amaieran jasotako balorazioa oso positiboa.

Era berean, irakasleei zuzendutako bi prestakuntza-saio ere egin dira. Saio hauetan genero-sozializazioa, maskulinitateak eta berdintasunaren eta feminismoaren aurrean agertzen diren erresistentzia maskulinoei aurre egiteko hainbat estrategia ikusi ditugu. Mila esker Gizonduzeko teknikariei euren prestutasunagatik!

# BATXILERGOA

## OSASUN JARDUNALDIAK

Txantxiku Ikastolako Batxilergoko 2. mailako Jarduera Fisikoa, Osasuna eta Aisia (JAO) irakasgaiko ikasleok osasunari buruzko jardunaldi bereziak antolatu ditugu, guztion ongizatea eta harreman sozialak sustatzeko. Osasuna ikuspegi integral batetik landuko dugu, aste osoan zehar ekintza ugari eskainiz. Jarduera batzuk adin desberdinetako ikasleen arteko elkarrekintzan oinarrituko dira, eta beste batzuk talde bakoitzaren beharrak sakonago aztertzeko balioko dute.

**IKUSI EGITARAUA**




# IKASTOLEN ELKARTEAREN PRENTSA BILDUMA

**LAN ESKAINTZA**

Egonaldietako eta udaleku itxietako teknikaria.

**EUSKARA**

24. Korrikako mezua: «Euskara gara eta hemen gaude».

**MUSIKA**

Ereinez elkartea sortu dute, musika eskubideen kudeaketa «eraikitzailea» sustatzeko.



EUSKALTZAINDIA

IRITZIRA
GANORA

OÑATIARTZAINDIA

ALEITZIRA
ARRETIA

# PENTSAMENDU KRITIKOAREN TXOKOA

**Azkar joatea gehiago ikastea al da?**

Besteak baino lehenago amaitzeak hobeto ikasi duzula esan nahi al du? Presaka egiten duzunean, ulertzen duzu ala amaitu besterik ez duzu egiten? Zer gogoratzen duzu gero? Ulertzen ez duzunean gelditzen zara ala aurrera jarraitzen duzu? Ikastea aurreratzea al da ala ulertzea?



# TXOKO BERDEA

Aurreko asteko erantzun zuzena Andrea Azkoaga zen, eta, bertan, sukaldeak edota alfonbraks eros ditzakezue.

Lehiaketako irabazleak, LH 5eko June Guridi eta Batxi 2ko Lur Ruiz!




Zein da aste honetako denda?




# GURE KUTTUNAK

**IZENBURUA:**
**El placer de  la lectura**

**IDAZLEA:**
**Ella Berthou**

**ITZULTZAILEA:**
**Ana Doblado**

**ARGITALETXEA:**
**Siruela**

Liburu hau irakurketa plazer eta ongizate iturri gisa berriro deskubritzeko gonbidapena da. Gomendio askotarikoen bidez, egileak momentu, egoera emozional eta egoera pertsonal desberdinetarako liburuak proposatzen ditu, egunerokoan laguntzeko errezeta txikiak balira bezala.

Gida tradizional bat baino gehiago, ibilbide iradokitzailea da, irakurketa plazeretik eta ez obligaziotik bizitzera gonbidatzen duena. Oso proposamen interesgarria iruditzen zait DBH edota Batxilergoko gazteentzat; irakurketara modu pertsonalago eta esanguratsuagoan hurbiltzeko pausoa ematera animatu daitezkeen horientzat.




Aitor Abaroa Sesma

IRAKASLEA

**Bidaliguzu asko gustatu zaizun liburu horri buruz kontatzeko duzuna: komunikazioa@txantxikuikastola.eus**

# LA SEMANA DE TXANTXIKU IKASTOLA 2026

13 de ABRIL, LUNES.

- El alumnado de JAO de 2° de Bachillerato realizará diferentes actividades con el alumnado de educación infantil y educación primaria:
  - HH: Harán ejercicios para trabajar los reflejos con la ayuda del profesorado.
  - LH: Hablarán de las dudas y preguntas que puedan tener sobre su cambio de ciclo para el próximo año.

14 de ABRIL, MARTES.

- El alumnado de 3, 4 y 5 años, y 1° y 2° de educación primaria, disfrutarán del espectáculo ZORIONAK MARI MOTOTS de PIRRITX, PORROTX etaMARI MOTOTS a las 10:30 en Santa Ana.

- Los JAO de 2° de Bachillerato visitará la residencia de mayores.

15 de ABRIL, MIÉRCOLES.

- El alumnado de LH 3 visitará la errota de Olabarrieta.

- A las 11:00, charla para el alumnado entre DBH 3 y 2° de bachillerato.

16 de ABRIL, JUEVES.

- A las 11:00 en santa ana, para el alumnado entre 3° y 6° de educación primaria, el espectáculo MAI TATZEN del grupo ZIRKUN.



- A las 17:00 en santa ana, espectáculo con txontxongilos realizado por el alumnado de 6° de educación primaria para familiares y el alumnado de 6° de educación primaria.

17 de ABRIL, VIERNES.

POR LA MAÑANA:

- Actividades especiales para el alumnado de HH, LH y BH en la ikastola.

AL MEDIODÍA:

- En el mercado, comida popular para el alumnado de educación secundaria y después juegos en el frontón..

POR LA TARDE:

- FESTIVAL en el frontón del polideportivo:14:30ean LHko ikasleentzat.
  - A las 14:30 para el alumnado de educación primaria.
  - A las 18:00 para las familias. * Se repartirán invitaciones para las familias a través del alumnado.

- A las 14:30 en el patio de la ikastola parque infantil para el alumnado de educación infantil: hinchables y tren.

- Entre las 16:30 y las 18:00 parque infantil abierto al público.





<u>18 de ABRIL, SÁBADO.</u>

Puertas abiertas para familias que quieran visitar los espacios del primer ciclo de educación infantil: 0-2 años

- Entre las 11:00-13:00 abriremos este espacio para que podáis venir a conocer y jugar con los pequeños. ¡Os animamos a participar y disfrutar en familia!

POR LA MAÑANA:

- A partir de las 11:00:
  - En la plaza, TALLERES, HINCHABLES, ACTIVIDADES DE PINTURA, TALLER DE CHAPAS y ACTIVIDADES SOLIDARIAS.
  - En el patio de la ikastola PARQUE INFANTIL, TALLERES, JUEGOS y TALLER DE TALOS.

- A las 11:45, BOCADILOS para el alumnado, tanto en el patio de la ikastola como en la plaza.
- A la 13:00 del mediodía, en frente de la ikastola de la plaza, PINTXO POTE.

POR LA TARDE:

- A las 14:30 comida popular para la comunidad en el mercado y después trikitilaris y el alumnado que está haciendo el curso de monitor AISIOLA amenizarán la sobremesa.

- A partir de las 18:00, trikipoteo por las calles del pueblo.

<u>19 de ABRIL, DOMINGO.</u>

- Prueba de orientación. No será una competición.
  - Se dará comienzo entre las 10:00-11:00 en el patio de la ikastola y finalizará no más tarde de la 13:00.
  - Todo menor tendrá que ir acompañado de un adulto.
  - Se darán más detalles durante la semana.

VENTA DE ROPA DE KILOMETROAK

- Durante 2 días, se podrá comprar ropa de la edición de este año:
  - 17 de abril, viernes, entre las 17:00-19:30 en la entrada del polideportivo.
    - 18 de abril, sábado, entre las 11:00-14:00 en la plaza.

# MAITASUN ESKUTITZ BATEN BIDAI LUZEA...

Los niños y niñas de 0 y 1 años celebraron de forma maravillosa la reivindicación a favor de la Korrika y del euskera. Llevaron un mapa de una furgoneta a otra, bailaron con la canción, corrieron, utilizaron dorsales, el testigo… Ha sido una experiencia muy especial para todos. Las educadoras no esperábamos que pudiera ser tan significativo para ellos. Y, como forma de agradecimiento, en cada testigo les enviamos el siguiente mensaje.

Nork esango luke, bada, ekimen bat txikitatik bizi ezin denik. Garbi dago baietz! Ahalegin, maitasun eta girotzea baino ez da gakoa!

Gurean behintzat, 0 eta 1 urteko Korrika-lagunak egunero ospatu dugu euskararen aldeko aldarria.

Hitz egin edo ez, hizkuntza, barnean daramagu, urte osoan. Hala ere, polita da zuon ahotik, "aua", "apapa"... bezalako hitzez gain "kotxika!", "tutatu!", "koika!", "KORRIKA!"... entzutea.

Eta noski, bakoitza bere martxan! Beti, garbi edukita, lehenengo lekukoa, ondoren pankarta eta gero beste guztiok joango garela, eskuin erraila libre utziz.

Eta gure pankartako furgoneta xumea egunez egun mugitzen joan gara elkarrekin, gure dortsalak eta lekukoak sortu ditugu...

Baina, 0 eta 1 urteko hezitzaileok garbi dugu, euskararen lekukoak zuok, gure txikitxook zaretela.

Segi bada, horrela luzaroan!

Asko asko maite zaituztegu!

*0 eta 1 urteko hezitzaileak*

Por otro lado, los niños y niñas de entre 2 y 5 años realizaron la carrera en la plaza del pueblo, y el alumnado de Lehen Hezkuntza, junto con el resto de centros del municipio, corrió por las calles como es habitual, turnándose el testigo. Las fotos tomadas durante el día podéis verlas en el siguiente enlace.



## VER TODAS LAS FOTOS

## ¡SE NECESITAN VOLUNTARIOS PARA ORGANIZAR LA COMIDA DE LA SEMANA DE LA IKASTOLA!

La comida que celebraremos el 18 de abril, dentro de la Semana de la Ikastola, ha tenido una gran acogida. Pero necesitamos personas voluntarias para ayudar en la organización. Hemos organizado turnos de trabajo y agradeceríamos que os apuntarais. Recordad que podéis inscribiros en más de un turno.

Además, necesitaremos hielo para mantener frías las bebidas. Para ello, os pedimos que llenéis bricks de leche con agua, los congeléis en casa y los traigáis ese mismo día.

De antemano, muchas gracias por vuestra ayuda. ¡Entre todos seguro que será un día estupendo!

# ¡APÚNTATE!




## PRIMEROS AUXILIOS: FORMACIÓN PRÁCTICA PARA EL PERSONAL Y EL ALUMNADO DE DBH 4

La semana pasada, en Txantxiku Ikastola, realizamos varias sesiones formativas muy interesantes sobre primeros auxilios. En ellas participaron tanto el personal del centro como el alumnado de DBH 4, quienes tuvieron la oportunidad de aprender cómo actuar en situaciones de emergencia.

Durante las sesiones, los participantes trabajaron diferentes situaciones prácticas como la reanimación cardiopulmonar (RCP), el uso del desfibrilador, pérdidas de conciencia o situaciones de atragantamiento. El aprendizaje se llevó a cabo de forma activa y participativa, mediante simulaciones que acercaban a situaciones reales.

La formación fue impartida por personas voluntarias de 2zirike, y queremos volver a destacar el gran trabajo que realizan y su compromiso con la comunidad. Muchas gracias por compartir con nosotros vuestro conocimiento y experiencia. ¡Aupa zuek!



# EDUCACIÓN INFANTIL

## EL ALUMNADO DE 5 AÑOS PANADEROS Y PANADERAS

Los niños y niñas de 5 años , para terminar con el tema de “Nutrición saludable”, hicimos una salida a Natur Eskola. Allí aprendimos cómo se hace el pan.

Anduvimos muy a gusto amasando el pan con nuestras manos, y al final conseguimos hacer panecillos. ¡Muchas gracias Unai, Miriam, Naia y Martin!



# EDUCACIÓN PRIMARIA

## VISITA DEL ESCRITOR HARITZ LARRAGETA

El alumnado de LH 6 tuvo la oportunidad de vivir un momento especial y enriquecedor el pasado viernes, 27 de marzo: recibimos la visita del escritor Haritz Larrageta en nuestra ikastola. Durante los últimos meses, los alumnos han leído con interés tres libros de Anna Kopek, disfrutando de las historias y compartiendo juntos diferentes pasajes.

Fruto de ese trabajo, pudieron mantener un encuentro cercano y agradable con el autor. Durante la sesión, el alumnado expresó sus opiniones, realizó preguntas y conoció algunos aspectos del proceso de escritura. En un ambiente participativo y cercano, se despertó aún más su interés y curiosidad por la literatura.

Ha sido una experiencia muy enriquecedora, que el alumnado ha vivido con ilusión.





# EDUCACIÓN SECUNDARIA

## FORMACIÓN PARA ALUMNADO Y PROFESORADO DE LA MANO DEL SERVICIO GIZONDUZ

Durante la segunda quincena de marzo, desde el servicio Gizonduz de Emakunde, se ha llevado a cabo una intervención educativa en nuestra ikastola con el alumnado de DBH 3 y DBH 4.La iniciativa ha consistido en dos sesiones de dos horas con cada grupo, en las que se han trabajado temas clave como la igualdad, las masculinidades, la socialización de género y la promoción de los buenos tratos. La participación del alumnado ha sido muy activa y la valoración final muy positiva.

Asimismo, también se han realizado dos sesiones de formación dirigidas al profesorado. En ellas se han abordado cuestiones relacionadas con la socialización de género, las masculinidades y estrategias para hacer frente a las resistencias masculinas ante la igualdad y el feminismo. Muchas gracias a las técnicos de Gizonduz por su disposición.

# BACHILLERATO

## JORNADAS SOBRE LA SALUD

El alumnado de 2º de Bachillerato de la asignatura Actividad Física, Salud y Ocio (JAO) hemos organizado unas jornadas especiales sobre la salud, con el objetivo de fomentar el bienestar y las relaciones sociales de toda la comunidad. Trabajaremos la salud desde una perspectiva integral, ofreciendo diversas actividades a lo largo de toda la semana. Algunas estarán basadas en la interacción entre alumnado de diferentes edades, mientras que otras servirán para profundizar en las necesidades de cada grupo.




## VER EL PROGRAMA

# IKASTOLEN ELKARTEA - COLECCIÓN DE PRENSA

**OFERTA DE TRABAJO**

Egonaldietako eta udaleku itxietako teknikaria.

**EUSKERA**

24. Korrikako mezua: «Euskara gara eta hemen gaude».

**MUSIKA**

Ereinez elkartea sortu dute, musika eskubideen kudeaketa «eraikitzailea» sustatzeko.

# EL TXOKO DEL PENSAMIENTO CRÍTICO

**¿Ir rápido es aprender más?**

¿Terminar antes que los demás significa que has aprendido mejor? Cuando haces las cosas deprisa, ¿entiendes o solo acabas? ¿Qué recuerdas después? Cuando no entiendes algo, ¿te paras o sigues adelante? ¿Aprender es avanzar o comprender?



# EL TXOKO VERDE

La respuesta de la semana pasada era Andrea Azkoaga, donde podéis comprar cocinas o alfombras.

¡Las ganadoras han sido June Guridi de LH 5 y Lur Ruiz Batxi 2!




¿Cuál es la tienda de esta semana?




# NUESTROS FAVORITOS

**TÍTULO:**
**El placer de la lectura**

**ESCRITORA:**
**Ella Berthoud**

**TRADUCTORA:**
**Ana Doblado**

**EDITORIAL:**
**Siruela**

Este libro es una invitación a redescubrir la lectura como una fuente de placer y bienestar. A través de recomendaciones muy variadas, la autora propone libros para distintos momentos, estados de ánimo y situaciones personales, como si fueran pequeñas recetas para acompañarnos en el día a día.

Más que una guía tradicional, es un recorrido sugerente que anima a leer desde el disfrute y no desde la obligación. Una propuesta muy interesante para jóvenes de DBH o Batxi que quieran acercarse a la lectura de una forma más personal y significativa.




Aitor Abaroa Sesma
PROFESOR

**Manda tu reseña sobre un libro que te ha gustado mucho a: komunikazioa@txantxikuikastola.eus**